

Sidenorren Azkoitiko lantegiko egoera salatu dute

Behin-behinekotasunarekin amaitzeko eskatu izan du Langile Batzordeak, eta orain, LABek publiko egin du afera // 6

Azpeitia Nora Alberdik eta Elena Olabek 'Eevee' argazki liburua sortu dute // 4

«Oso liburu ederra da, sinplea, baina mingarria ere bai batzuetan»

Koldo Landaluze
Ilustratzailea

'Zirriborroak, kontatu behar ez nituenak' liburua marrazkiz jantzi du // 2

Txalintxo
tabernak Ernai
salatuko du,
«akusazio
larriak» tarteko

Azkoitiko jaietan bi emakumek Txalintxon eraso jasan zutela azaldu eta taberna «konplize» egin zuen Ernaik, hangoen erantzuna tarteko // 7

«Txapeldunen
Ligako ereserkia
Anoetan entzuteko
gogoz nago»

IGOR ZUBELDIA
FUTBOLARIA

Une gozoa bizitzen ari da Realeko jokalaria, bai kirol arloan, bai pertsonalean: kontratua berritu du, lehen aldiz Txapeldunen Liga jokatu du, eta, gainera, aita izan da. «Zortedun sentitzen naiz», adierazi du // 5

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

aek
euskara
praktikoa



**Urola
Kostako Aek**

Matrikula zabalik,
irailaren 1etik 22ra

zarautz@aek.eus · 943 13 01 75
zumaia@aek.eus · 943 86 02 48
getaria@aek.eus · 688 89 17 43
orio@aek.eus · 670 420 025
aia@aek.eus · 688 89 17 43

DIRULAGUNTZAK

Zabalik da xake ikastaroetan izena emateko epea

KIROLA // Kbi xake kluba ikas-turte berriari begira jarri da, eta aurtengoan ere eskainiko dituzte hastapen eta hobekuntza mailetan xakean aritzeko ikastaroak, astelehenero. Jada eman daiteke izena zumaiaxaketaleda@gmail.com helbidera me-zua bidalita, baina interesa du-ten herritarrek aurrez xake klu-ba ezagutu ahal izango dute, hilaren 22an eta 29an egingo di-uzten ate irekietan.




Benito Lertxundi. UTZITAKOA

Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak, ahituta

KULTURA // Benito Lertxundi kantautore oriotarrak kontzer-tua eskainiko du gaur Zumaian, Aitzuri pilotalekuan. Sarrerak salgai izan dira uztailaren amaieraz geroztik Internet bi-dez-entradium.com atarian- nahiz Zumaia-ko Turismo Bule-goan, eta dagoeneko guztiak agortu dira. Beraz, udalak jak-i-narazi du kontzertua hasi aurre-tik ez dutela leihatilan sarrerarik salduko.

Larhunera joango dira mendizaleak igandean

KIROLA // Egun osoko irteera an-tolatu dute Indamendiko kideek astebururako. Saratik (Lapurdi) Larhongo tontorrera igo, eta Be-ran (Nafarroa) amaituko dute ibilaldia. Oinez nahiz korrika egin ahal izango da bidea. Inda-mendiko webgunean edo Goiko estankotan (943-86 03 57) gaur eguerdia baino lehen eman be-har da izena irteeran parte har-tzeko. Autobusa Patxita Etzeza-rretako geltokitik aterako da.



UTZITAKOA

«Idazten ari naizenean, irudiek erasotzen naute, eta, marraztean, hitzek»

KOLDO LANDALUZE ILUSTRATZAILEA

Koldo Landaluze (Bilbo, 1965) Zumaia-ko bizilaguna ilustratzailea da, kazetaria eta idazlea izateaz gain. 'Zirriborroak, kontatu behar ez nituenak' liburuko ipuinei marrazkiak jarri berri dizkio.

-MARIA MAYA MANTEROLA

Nagore Belastegi legazpiarrak (Gipuzkoa) hamahiru ipuinez osaturiko liburua argitaratu be-ri du. Koldo Landaluze Zumaia-ko bizilaguna aritu da haren ipuinei marrazkiak jartzan, eta haren hitzetan, «jolas liluraga-ria» da hitzak eta marrazkiak tar-tekatzea.

Liburu ugari idatzitakoa zara, eta bat edo beste ilustratu izan duzu. Nola sortu zaizu azken la-nean parte hartzeko aukera?

Nagore Belastegiren dei bat jaso nuen, eta bere proiektuan parte hartzera gonbidatu ninduen. Bere kabuz argitaratutako eta kontakizun laburrez osatutako liburu bat kaleratzea zuen bu-ruan. Esan zidan ilustrazioak gehitu nahi zituela, akonpain-a-

mentu soil gisa funtzionatzen ez zutenak, testuari zerbait eransten ziotenak. Esan nion pixka bat pentsatuko nuela, errespetu handia ematen didala-ko arrotza zaidan mundu batean bete-betean sartzeak. Hori esan nion, baina tematu egin zen. Be-raz, ez nuen arrazoirik izan ezez-koa emateko.

Nola egin duzue lan Belastegik eta biok? Hark ipuinak pasa dizkizu eta zuk ilustratu, ala...?

Hori da. Hasiera batean, askata-sun osoa nuen marrazkiak egite-ko. Eginak nituenak bidaltzen nizkion, eta batzuek ez zuten galbahea pasatu, zorionez, bir-planteatzera behartu ninduela-ko. Ariketa interesgarria izan zen; elkarrenganako errespetua nabaria zen. Ipuin batzuk alda-

tzen joan ziren. Nagorek oso ondo definitzen zuen lerroa, eta horrek lagundu zidan haren munduan sartzen eta haren ipuinek niri esaten zidatena bir-sortzen edo zirriborratzen.

Nolakoa izan da sormen proze-sua?

Hasieratik, liburuak *Zirriborroak, kontatu behar ez nituenak* izenburua izan aurretik ere, iru-diek ia zirriborroak izan behar zutela pentsatu nuen. Estilo az-karra izatea nahi nuen, asko ze-haztu gabea, Nagoreren testuen irakurketak ematen zidanaren isla. Bizkorrak eta usteetara ire-kiak izatea nahi nuen irudiak, batzuk zuzenagoak, beste ba-tzuk sinbolikoagoak. Marrazke-ra librea aukeratu nuen, asko kargatu gabea, eta batzuetan ar-

UROLA KOSTAKO HITZA
Ostirala, 2023ko irailaren 15a

katza bakarrik erabili nuen. Ko-lore tonuak emozioak indartze-ko soilik baliatu nituen, eta lerro okerrak jarri nituen testuak amets edo eze-gonkortasun mo-duko zerbait adierazten bazi-dan. Batzuetan gogaikarria den sentsazio hori sortzen saiatzen gara, seguru edo lasai ez senti-tzea eragiten diguna.



«Hasiera batean, askatasun osoa nuen marrazkiak egiteko»

«Nagorek ondo definitu zuen lerroa; horrek lagundu zidan zirriborratzen»

«Oso liburu ederra da, sinplea, baina zuzena eta mingarria ere bai tarte batzuetan»

Ipuinak dira, baina helduen-tzat.

Hala da. Behinola Nagoreri kon-tatu zizkieten edo hura protagon-ista izan zen istorioak dira. Hark sentimendua eta emozioa eman dizkie, eta hori oso ondo irudikatzen da hizki motetan edo liburuaren egitura narrati-boan. Nire ilustrazioez haratago, oso liburu ederra da, sinplea, baina zuzena eta mingarria tarte batzuetan. Eguneroko kronika txikiak dira, tarteka tonu argitsu eta grisetan iraultzen direnak.

Zer nahiago duzu, istorioak hit-zez ala margoz kontatzea?

Zeinen galdera zaila. Pentsatzen dut egoera edo bizi etapa bakoit-zean gorputzak zerbait ezberdi-na eskatzen dizula; batzuetan nahiago dut hitzekin kontatzea, eta beste batzuetan, ilustrazioe-kin. Idazten ari naizen bitartean irudiek erasotzen naute, eta ma-rrazten dudanean, hitzak etor-tzen zaizkit. Jolas liluragarria da bi elkarrikizketak tartekatzea, hi-tza eta marra.

Zer-nolako harrera izan du la-nak?

Liburuaren ofizialki Legazpin aur-keztu zuten herenegun. Ha-mahiru istorio, hamahiru ilus-trazio, hilaren 13an aurkeztuak. Beldurra ematen dit zenbaki hori hainbeste aldiz errepikatze-ak, baina idazleari izugarri gus-tatzen zaio haren tabu testu-iguru. Salgai jarri diren libu-ruek, oraingoz, oso harrera ona izan dute. Susmatzen dut idaz-le-ak baduela zerbait buruan.



Rafa Villafañe, Leire Arana, Lidia Insausti eta Mikel Makala, jaialdiaren aukezpenenak. ARITZ MUTIOZABAL

Udazkenari doinu beroak

Irailaren 29tik 31ra ospatuko dute Adarretatik musika jaialdia
• Munoan ez ezik, aurtan Musika Plazan ere eskainiko dituzte kontzertuak • Rafa Villafañak irekiko du aurtengo edizioa

–ARITZ MUTIOZABAL

Ekitaldiari «garrantzia eta leku» emate aldera, aurtan Adarretatik musika jaialdia uztailetik iraila amaierara aldatzea erabaki dute. Udan ehunka aukera izaten denez, irailaren 29tik 31ra ospatzeko «apustua» egin dutela azaldu du Leire Arana udaleko zinegotzi ordezkariek: «Jaialdi hau herrian antolatzen diren beste musika ekitaldien osagarri da, eta jada egonkortuta dago. Gure filosofia da denetarik eta denontzat eskaintzea, eta Adarretatik egitasmoak musika mota ezberdinak uztartzen ditu, estilo jakin batzuk. Zentzu horretan, aberasgarria dela iruditzen zaigu».

Jaialdiaren antolatzaile den Enbor Akzio Kulturalako arduradun Mikel Unzurrunzaga Makalak azaldu duenez, data aldaketak ez da izango aurtengo beritasun bakarra. Hastapenetatik herriko hainbat tokitan emanaldiak eskaini dituzte: Borghetton, Frontoi Txikin, eta pandemia garaian, Modelo aretoan. Iaz Munoa plaza bilakatu zuten jaialdiko gune nagusi, eta aurtan ere horrek hala izaten jarraituko du. Hala ere, bigarren gune bati ere presentzia nabarmena emango

Egitaraua

IRAILAK 29, OSTIRALA

19:30. La Jodedera eta Rafa Villafañe, Musika Plazan.
22:00. Nakar, Munoa plazan.
23:15. La Perra Blanco, Munoa plazan.

IRAILAK 30, LARUNBATA

19:30. Erromintxelak, Musika Plazan.
22:00. Argizulo Ta Beñaranks & Eira, Munoa plazan.
23:15. Akatz Ska Band, Munoa plazan.

IRAILAK 31, IGANDEA

13:00. Donosti Lindy Hop eta Mr. Patxi 'Crazy Legs' DJa, Musika Plazan.
18:00. Antonio Lizana Trio, Munoa plazan.

diote: Musika Plazari. «Lehen edizioan ere egin genituen pare bat kontzertu kioskoan, eta aurtan berreskuratu egin nahi izan dugu herriko erdigunea», zehaztu du Makalak.

Enbor Akzio Kulturalako kide Lide Insaustiren esanetan, «partaidetza handia izango du jaialdiak, eta udazkenean izango de-

nez, agian gehiago egongo da zuzenduta herritarrentzat». Horrez gain, azpimarra berezia egin nahi izan du emakume artistek jaialdian izango duten presentzia; horren adibide dira Nakar, La Perra Blanco eta Eira, esaterako. Era berean, musikarekin batera, dantzak ere bere tokia izango du jaialdian: Donosti Lindy Hop taldearekin gorputza astintzeko beta izango dute bertaratzen direnek. Antolatzaileek argi utzi dute euskararen presentzia «bermatuta» egongo dela.

Pertsona kutuna

Aurtengo Adarretatik jaialdia urte luzez Zarauzko bizilaguna den Rafa Villafañe dominikarrak irekiko du, La Jodedera bere taldearekin batera. «Guretzat egundoko plazera da, Rafa oso pertsona kutuna baita herrian, eta gure ustez oso beharrezkoa zen hark protagonismoa izatea», adierazi du Makalak. Villafañe pozarren agertu da antolakuntzak emandako aukerarekin. Halaber, aurreratu du beren emanaldia bi zatitan banatuko dutela. Hasieran, haren bakar-kako ibilbideko abestiak joko dituzte, eta ondoren, La Jodedera gisa eskainiko dute kontzertua.

Gaur, 'Baginaren bakarrizketak' obra izango da ikusgai

KULTURA // Txalo Produksioak taldeak Baginaren bakarrizketak antzezlan taularatuko du gaur Modelo aretoan, 20:00etatik aurrera. Obra horretan, adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetako berrehun emakumeri egindako elkarrizketen emaitzak gozatu ahal izango dute ikusleek. Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Etxebarria eta Intza Alkain dira komedia horretako aktoreak.

Aurretiazko Borondateen Agiria egiteko aukera

GIZARTEA // Zarautz Herri Zaintzaileak eta Inurritza jubilatuko pentsiadun elkarteak Aurretiazko Borondateen Dokumentua egiteko aukera eskainiko dute elkarlanean datorren irailaren 21ean, ostegunarekin; 18:00etan jarri dute hitzordua, Inurritza elkartearen lehen solairuan. Interesa dutenek bihar izango dute izena emateko azken eguna, Inurritza elkartearen bulegoan, 10:30etik 12:00etara.

Txirrindulari Txikien Eguna ospatuko dute bihar goizean

GIZARTEA // Mugikortasunaren Europako Astearekin bat eginez, Zarauzko Udak XXII. Txirrindulari Txikien Eguna antolatu du biharko, Zarauzko Zikloturista Elkartearekin batera. Bizikleta martxa egingo dute Salbideko jolas parketik abiatuta, herrian zehar. 10:30ean hasiko da, eta ondoren, parte hartzaileentzako hamaiketako eta opari zozketa egingo dituzte. 6-12 urte bitartekoek zuzenduta dago, eta kaskoa derrigorrezkoa izango da.

Asteburuan jokatu dute azkenean Zarautz 4Teens txapelketa

–JABI GONZALEZ TOSTON

Bost hilabete eta erdiko atzerapenarekin bada ere, asteburuan izango da Aritz Aranburu surf-lariak antolatutako Zarautz 4Teens surf egokituko eta 14 urtetik beherakoentzako nazioarteko txapelketa. Zazpigarren edizioa izango da aurtengoa, eta badirudi asteburu honetan jokatu ahal izango dela, birritan bertan behar gelditu ondoren.

Apirileko lehenengo asteburuan jokatu behar zuten hasiera batean, baina itsasoaren baldintzen ondorioz, bi astez atzeratu eta Aste Santuko oporraldiaren ondoren egitea erabaki zuten antolatzaileek. Orduan ere ez zuten egin, ordea, arrazoi bera tarteke: baldintza meteorologikoak eta itsasoarenak ez ziren egokiak izan.

Hori horrela, eta eguraldiak antolatzaileen asmoak berriro ere zapuzten ez baditu, gaur arratsaldean hasi eta igandera arte jokatu dute Zarautz 4Teens txapelketa. Kind Surf Challenge txapelketa egingo dute gaur, eta bihar eta etzi, berriz, 14 urtez azpikoena eta 10 urtez azpikoena. Txapelketaren finalak igande arratsaldean jokatu dituzte, eta amaieran sari banaketa egingo dute. Amaitzeko, txapelketako parte hartzaile guztiekin argazkia aterako dute.

Gainerakoan, hiru egunetarako, surfaz eta lagunartez gozatzeko hainbat egintza antolatu dituzte: zuzeneko musika, parrilladak, haurrentzat tailerrak, skate txapelketa, hondakin bilketa, dokumental emanaldia eta abar.

Zozketa HITZAKIDEen TXOKOA

TERE ARREGI ITURZAETA (ZARAUTZ)
OLATZ LASKIBAR ZABALA (ZARAUTZ)

Hitz jarriko da irabazlearekin harremanetan

KULTURA
Oteiza
Museoa



'Eevee' ondu dute Nora Alberdik eta Elena Olabek, azpetiarren irudiak eta durangarraren narrazio bat jasotzen dituen argazki liburua. Dinamoa sormen gunean aurkeztuko dute lana, bihar.

Etengabeko eboluzioan

-MAILOOIARZABAL

Sormenari eragiten eta eragite horren emaitzak plazaratzen jarraitzen du Nora Alberdik (Azpeitia, 1997). *Kuriosoa* (2019) eta *Bigarren Sexua(z) Collage* (2019, Iratxe Fresnedarekin) film laburrak eta EITBk eta Gazteak sustatutako *Daniela* (2021) zuzendu ondoren, pantailetatik paperera egin du jauzi orainoan, *Eevee* argazki liburuarekin. Elena Olabe idazle durangarrekin (Bizkaia) batera egin du, eta bihar aurkeztuko dute bi egileek lan berria jendaurrean. Oraintsu arte Alberdiren lantoki ere izan den Soreasuko Dinamoa sormen gunean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 13:00etan.

Ikus-entzunezkoen bidea jorratu du Alberdik nagusiki orain arteko sortzaile ibilbidean, baina pantailetatik papererako jauzia erroetara itzultzea ere bada harrentzat; argazkilaritza betiko zaletasuna eta jarduer du, eta hain zuzen ere, 2019ko hasieran Sanagustin kulturgunean jarri zuen argazki erakusketa izan zen jendaurreko haren lehen agerraldi nagusia.

Alberdik egindako 44 argazki eta Olabek idatzitako narrazio labor batek betetzen dituzte *Eevee*ren orrialdeak.

Pokemonak eta 'sexilioa'

Transexualitatea, generoa eta feminismoa landu izan ditu Alberdik zuzendu dituen ikus-entzunezkoetan, eta *Eevee* ere ildo be-

rekoa da, gaiari dagokionez. «Iruditzen zait nire lan denetan agertuko direla gai horiek. Generoa, sexualitatea... mugitzen nauten gaiak dira, egunero bizi ditut, eta egunero kezka eta zailtasunak sortzen dizkidaten gaiak dira», dio azpetiarrak.

Pokemon baten izenarekin bataiatu dute liburua Alberdik eta Olabek, Alberdiren sorkuntzen gaiarekin zerkusi zuzena duen Pokemon baten izenarekin, hain zuzen: «Pokemon guztiek dituzte eboluzio bat baino gehiago, normalean hiru-edo izaten dituztela uste dut. Baina Eeveek, justu, eboluzio pila bat ditu, ez dakit zenbat diren. Esaten da Eeveeren eboluzio bakoitzak LGTBI+ komunitateko kide bakoitzaren eboluzioarekin eta banderaren koloreekin lotuta dagoela. Beraz, Pokemon hau bada, nolabait, komunitatearen irudikapen bat».

LGTBI+ komunitateko kideen artean ezaguna den errealtate bat jorratu dute, izan ere, Alberdik eta Olabek liburuan: *sexilioa*. *Sexu* eta *exilio* hitzen bategitte horren esanahia honela azaldu du azpetiarrak: «Zure generoagatik edo sexu orientazioagatik egiten duzun mugimendu bat dela esan genezake. Normalean, herri batetik hiri batera egiten den mugimendua izaten da. Horrela definituko nuke *sexilioa*».

Elkarrekin «zerbait»

Euskal kultur sorkuntza eta kritika feminista izeneko graduondoko ikastaroa egiten ari zirela ezagutu zuten elkar *Eevee*ren



Nora Alberdi, liburu berria eskuetan, Soreasuko plazan. MAIALEEN ETXANIZ

egileek. «Bizitzak eta hartu-emanak eraman gintuzten gai hauek hitz egitera, *sexilioa*-eta», kontatu du Alberdik.

Iaz, «bien artean zerbait» egiteko gogo piztu zitzaion. Ideiak eta balizko proiektuak partekatzeak karpeta bat sortu zuten Drive-n, baina hasierako ideia eta asmo lausoak ez ziren berehalakoan hezurramitu. «Zerbait egin nahi genuen, baina ez genekien zer». Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen Egile sarira aurkeztu ziren, dirulaguntza lortu zuten, eta behar zuten akulu bihurtu zitzaion laguntza hori. «Elkarri eskutitzak bidaltzen hasi ginen. Gutun horiekin, nik argazki bat bidaltzen nion, eta berak argazki horretan oinarritutako testu bat bidaltzen zidan», kontatu du Alberdik.

Mezu eta eduki truke horretan oinarrituta erabaki zuten, azkenean, argazki liburua egitea, Alberdiren argazkiak eta Olaberen testu bat elkar lotuta. Bestelako ekarpenak ere jaso dituztela zehaztu du, ordea, azpetiarrak: «Tarteak elkarriketa batzuk ere izan ditugu, lagunekin eta gertukoekin. Azkenean, liburuan kontatzen diren bizipenak kolektiboak dira, gureak eta gure ingurukoenak».

Olabek testuari forma ematen zion bitartean, testu horrekin ondo ezkonduko ziren argazkiak inguratzen eta aukeratzeko joan zen Alberdi. «Testuaren zirriborroa eskuetan, nire argazki artiboan bila hasi nintzen. Liburuan dauden argazkiak azken bi urteetan egindakoak direla esan daiteke. 2021ean kamera analogiko

bat erosi nuen, eta harekin hasi nintzen liburuan ikus daitezkeen argazkiak ateratzen».

Aldundiaren dirulaguntza tarterko, epe zehatz bat zuten Alberdik eta Olabek lana bukatzeko. Liburua joan den udaberrian argitaratu zen berez, baina aurkezpenean uza ondorenerako uztea nahiago izan dute. Emaitzarekin gustura dago Alberdi: «Polita izan da. Prozesu bat izan da, bere gorabeherekin. Beste pertsona batekin lan egiteak eskatzen dizu hartu-eman izatea eta iritzia partekatzea, baina oso gustura nago emaitzarekin».

*Eevee*ren ale bat eskuratuta nahi dutenak Alberdirekin edota Olabekin jar daitezke harremanetan. Bestela, Durangoko (Bizkaia) Artea liburu dendan ere aurkituko dute argazki liburua.



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK ESKAINTZEN DIZU ZERBITZU INTEGRALA

- Beilatokia eta errausketa-labea instalazio berean
 - Areto intimu eta argitsuak
 - Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
 - Profesional berberak
- Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h)

memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m Zarautz
Hileta
memora Zerbitzuak

– JABI GONZALEZ TOSTON

Urte berezia ari da izaten zuretzat 2023a, kirol arloan ez ezik, baita maila pertsonalean ere. Nola ari zara bizitzen hori guztia?

Halaxe ari da izaten, bai. Kirol arloan, talde bezala lor daitekeen helburu handienetakoa betetzea lortu dugu Txapeldunen Liga jokatzeo txartela eskuratuta, eta kontratua berritzeko aukera ere izan dut. Oso pozik nago. Horrez gain, aita izan naiz, apirilean jaio zen gure alaba, eta orain arte bizi izan dudana gauzarik bereziarena izan da hori. Haurra duzunean, gainerako guztia bigarren maila batean geratzen da, nahiz eta, noski, futbolari ere ematen diodan garrantzia.

Nola uztartzen da goi mailako kirola eta guraso izatea?


Alaba jaio aurretik askok esaten zidaten nire bizimodua izugarri aldatuko zela, eta jakitun nintzen horretaz. Dena den, banekeen nire bizi ereduaz ez zela erabat aldatuko; izan ere, aita izan aurretik lagunekin egoteko tarreak hartzen banituen ere, ez nuen askorik irteko aukerarik. Goizetan entrenamenduak ditut, ondoren atsedean hartzen dut, asteburuetan partidak... Nolanahi ere, aldaketak izan dira, noski, etxean beste ardura bat dudalako orain eta ezin dudalako nahi dudana guztia egin, baina gozatzen ari naiz horrekin ere. Zer esanik ez egun txarra dudanean edo partida txarra egin dudanean, izan ere, etxera iritsi eta txikiari aurpegira begiratzean, txar horiek guztiak pasatu egiten dira. Botiketan ez dago hori gaindituko duen sendagairik.

Hemendik aurrera, hiru egunetik behin jokatu beharko dituz partidak Txapeldunen Liga dela eta. Horretarako gogoa ere izango duzu, ezta?

Bai. Erronka berria dugu aurten esku artean. Taldekide gehienontzat txapelketa berria da, eta oso gogotsu gaude Anoetan Txapeldunen Ligako ereserki berezi hori entzuteko eta ikusteko zer egiteko gai garen munduko futbol talde onenen aurka.

Edonola ere, ezin esan taldeko jokalariontzat berria izango denik Europa mailan lehiatzea. Aurreko hiru denboraldietan Europa ligan aritu gara eta badugu esperientzia, baina aurtengoa oso desberdina izango da. Beste koska bat edo bi egingo ditugu gora. Hala ere, seguru nago guk gure lana egiten badugu emaitza onak lortzetik gertu ibiliko gara.

Harrobiaren aldeko apustua



URTZI OTEIZA

«Reala ez litzateke ezer izango harrobiko jokalaririk gabe»

IGOR ZUBELDIA FUTBOLARIA

Une gozoan da Igor Zubeldia (Azkoitia, 1997) Realeko futbolaria. Kontratua berritu du, aita izan da, eta Txapeldunen Liga jokatuko du lehenengoz. Ez da konformatzen, ordea; beste titulu bat nahi du.

egin da lortu du Realak Europa sailkatzea urte hauetan guztietan. Aurten, ordea, kanpoko jokalaririk ugari fitxatu ditu klubak erronka berriaren aurrean. Nola ikusten duzue hori etxeko jokalaririk?

Klubaren gauza da hori. Dena den, harrobiko jokalaririk asko gaude oraindik lehen taldean. Izango dira partidak zeinetan kanpoko jokalaririk gehiago zelairatuko diren harrobikoak baino, baina ez diogu gehiegi begiratzen horri, helburua beti izan delako irabaztea. Horregatik, uste dut onek edo momentuan maila onean daudenei jokatu behar dutela, betiere, kontuan hartuta nondik gatozen, zer garen, eta zer nahi dugun. Uste dut Realak duen gauza garrantzitsua dela harrobia, ez litzatekeelako ezer izango bertan hazten diren jokalaririk gabe. Gainera, uste dut za-

leek ere balio bikoitza ematen diotela lortzen ari garen guztiari, bertako jokalariekin ari garelako lortzen.

Harrobiaren aldeko apustu horren isla ere bada zuri kontratua berritzea. 2029ra arte sinatu duzu hitzarmena.

Oso eskertuta nago klubak, entrenatzaileak eta haren lagun-



«Beste titulu bat irabazi nahi dugu, garaikurra zaleen aurrean altxatzeko»

tzaile talde osoak egunerokoan helarazi didaten konfiantzagatik, eta asko eskertzen diet taldekide guztiei ere, haiek gabe hau ez litzatekeelako posible izango. Horrez gain, uste dut nik ere era-

kutsi dudala lehen mailako futbol jokalaria izateko balio dudala eta horregatik iritsi zaidala saria. **2016an egin zenuen debuta, eta berrehun partidatik gora jokatu dituzu jada. Epe horretan postuz ere aldatu zara, zelaierdian jokatzen hasi baitzinen, eta atzelaria baitzara orain.**

Bai. Denbora dezente igaro da aldaketa hartatik, baina egia da hasieran banituela zalantzak ea balioko ote nuen postu horretan jokatzeo. Dena den, denborak aurrera egin ahala erosoago sentitu naiz, eta erabateko konfiantzarekin aritzen naiz. Azken finean, egunero postu jakin batean entrenatzen baduzu, ohitura jakin batzuk hartzen dituzu. Horregatik, erdiko atzelaritzat dut neure burua jada, eta zelaierdian aldatuko banindute berriro, bertara egokitzeo entrenatu behar harko nuke.

Oso gazte utzi zenuen Anaitasuna Realera joateko. Baduzu Txerloira joateko ohiturarik herriko taldeak animatzera?

Aspaldian gutxitan joan naiz, etxean lan gehiago dudalako orain. Dena den, noiz edo noiz bertaratu izan naiz. Bihotzean daramat taldea, eta bertan jokatzen duten lagunak ditut.

12 urterekin iritsi zinen Realera, eta 26 dituzu orain. Gutxienez, beste bosterako duzu kontratua sinatuta, gainera. Atzera begiratu eta nola ikusten duzu egindako bidea?

Debuteko eguna oso berezia izan zen niretzat, bertan hasi zelako nire ibilbidea lehenengo taldearekin eta gaur egun ere bertan jarraitzen dudalako. Oso pozik nago ordutik lortu dudana guztiagatik, ez bainuen uste Realekin titulu bat izango nuenik, Europa ligara hiru urtez jarraian sailkatuko nintzenik eta laugarrenean Txapeldunen Liga jokatuko nuenik. Aurrerantzean gauza gehiago ere lortu nahi nituzke, noski, baina ezin naiz kezatu. Zorteduna sentitzen naiz.

Realarekin lortutako Errege Kopako titulua aipatu duzu. Osorik jokatu zenuen Athleticek aurkako final hura. Nola gogoratzen duzu?

Hainbat oroitzen ahaztuta ditut, baina onenak ongi gordeta daude. Arantzatxo ere badugu gure zaleek ezin izan zutelako bertan egon pandemia zela eta. Horregatik, beste tituluren bat irabazi nahiko genuke, garaikurra haien aurrean altxatzeko.

Eta zein dira hain borobila izaten ari den urte honi begira dituzun erronka nagusiak?

Ez naiz jarri horretan pentsatzen, baina nire helburu nagusia da jarraipena ematea orain arte egin dudana lanari, pertsonalki nahiz kolektiboki hobetzeko. Emaitzak askotan ez daude gure esku, baina norberaren lana bai, eta ahal dudana ondoren egiten ahaleginduko naiz.

Norberaren lan ona saritzen dutenak selekzioaren deia izaten dira askotan. Datorren urtean Europako Txapelketan izan nahiko al zenuke?

Sekula ez dut helburutzat izan Espainiako selekzioaren deia jasotzea, oso urrun ikusten nuelako. Egia da bai aurreko denboraldian eta bai honetan aurretiazko zerrendetan sartu nautela eta izan ditudala aukerak deialdie-tan egoteko. Niretzat gehigarria da hori, gauzak ongi egiten ari naizen seinale delako, baina nire helburua beti izan da nire taldeari irabazten laguntzea.

-ANE OLAIZOLA

Sidenorreko Azkoitiko lantegiko Langile Batzordea duela biz-pahiru urtetik ari da eskatzen zuzendari-tzak langileen behin-behinekotasunarekin amai dezala, eta hura osatzen duten ELA, LAB, CCOO, UGT eta USO sindikatuak deituta, hainbat elkarretaratze ere egin dituzte azken hilabeteetan. Protestek behar adina babes ez zutela izan ikusita, ordea, uztailean mobilizazioekin amaitzea eta aldarrikapena beste bide batzuetatik helaraztea erabaki zuten Langile Batzordeak. Dena den, LABen ustez gatazka ez da amaitu; are gehiago, egoera «larritu» egin da. Azken urteetako afera publiko egin nahi izan dute lantegi horretako LABen ordezkari diren Kepa Urzelai eta Imanol Garmendiak.

Industriaren sektorean, Azkoitiko lantegi nagusietarikoa da Sidenor altzairu fabrika: 337 langile ditu egun, sindikatuaren arabera, duela bost urte baino ehun gutxiago, eta behin-behinekotasunean dauden beharginen kopuruak «antzekoa» izaten jarraitzen du. Haien ustez, aldi baterako langileen zenbatekoa baino, haiek egoera horretan daramaten denbora da arazoa. «Kontratu desberdinak lotuz, bost, sei eta zazpi urte behin-behinekotasunean daramatzaten hamasei langile daude enpresan». Hain zuzen, behin-behinekotasunean denbora gehien daramatzaten hamasei langileei kontratu iraunkorra egitea izan da elkarretaratzeetan aldarrikatu dutena.

LABek azpimarratu duenez, horrenbeste urtez behin-behinean dauden lanpostuak «estruturalak» dira; teknikoak eta kualifikatuak: «Mantenuko langileek bost errelebotara egiten dute lan, eta bakoitzean bina



Kepa Urzelai eta Imanol Garmendia, Sidenorreko Azkoitiko lantegiko LABen ordezkariak. ANE OLAIZOLA

Sidenorren Azkoitiko fabrika, aldi baterako lan kontratuan lau, bost eta sei urte daramatzaten hamasei behargin daudela salatu izan du Langile Batzordeak, eta LABek publiko egin du «okertzen» ari den afera.

Behin-behineko iraunkorrean iltzatuta

elektrikari eta mekanikari egoten dira; guztira, hamar. Horieta-tik, bakarra da finkoa. Beste bat azpikontratututa dago, eta gainerako zortziak behin-behinean daude azken bost eta zazpi urte artean», esan du Urzelai. Haren esanetan, enpresak langileen bakoitzari kontratu behin-behinean daudenei «kontratu motzak behin eta berriz» egiteko.

Azkoitiko lantegiko Langile

Batzordeak behin baino gehiagotan salatu izan du langile horien egoera «prekarioa». Izan ere, Garmendiak zehaztu duenez, haiek ezin dute beren bizitza «normaltasunez» garatu: «Ezin dute, esaterako, etxebizitzarik erosi, bankuan krediturik eskatu edo ezeren gaineko konpromisorik hartu, horrek dituen ondorio guztiekin. Bizimodua baldintzatuta dute».

LABen ustez, behin-behinean dauden langileek azken urteetan «sobera» erakutsi dute beren posturako «aproposak» direla, eta bizi duten egoerak, haiei ez ezik, beste behargin guztiei ere eragiten die: «Sidenorrek kontratu iraunkorrik ez duela egiten ikusita, behin-behinean dauden langileak beste enpresa batzuetara joaten dira. Langile kualifikatuak galdu ditu enpresak, eta

horren ondorioak beste langileok ordaintzen ditugu».

Sindikatuaren arabera, enpresak «epe motzean» ez du aurreikusten langileei kontratu iraunkorrik egitea: «Inongo arrazoirik eman gabe, hori izan da enpresaren orain arteko erantzuna. Inpotentzia sorrarazten digu, [enpresa] esaten ari delako hark nahi duenean egingo dituela langileak finko. Ordea, langileek nahikoa meritu egin dute iraunkor izan daitezen, eta bien bitartean, enpresak irabaziak jaso ditu. Ez da bidezkoa, langile horiek ere enpresaren irabazien parte direlako». UROLA KOSTAKO HITZA enpresarekin harremanetan jarri da, baina hark ez du azalpenik eman egunkarik atzoko edizioa ixterako.

Lan hitzarmena helduleku

Langile Batzordearen eskutik, Azkoitiko Sidenorreko beharginek martxotik uztaileara bitartean ostiralero egin zituzten elkarretaratzeak, baina LABeko ordezkariak aitortu dute langileei «kosta» egin zaiela protestara joateko pausoa ematea: «Askok adierazi digute beren babes, eta behin-behinean dauden langileek ere eskertu digute, baina argazkian ateratzeak beldur handia ematen dio jendeari».

LABen asmoa zen mobilizazioei eustea, baina bide hori agortzea erabaki du Langile Batzordeak, eta egun, enpresako lan hitzarmena dute jomugan sindikatuak. Izan ere, guztien artean artikulu bat landu dute, lan hitzarmen berrirako aurkez dezaten. Datorren abenduaren 31n amaituko da enpresari dagokion lan hitzarmena, eta landutako artikulua xehetasunik eman ez badute ere, LABeko kideek azaldu dute beren eskaerak «irtenbide handia» emango liokeela lantegiaren «betiereko» behin-behinekotasunari.

Hizkuntza Eskolak izen ematea zabaldu du

-A. OLAIZOLA

Hizkuntza Eskola Ofizialak zabaldu du datorren ikasturterako matrikulazio epea, eta Azkoitiko gela desplazatuetan ere eman daiteke izena dagoeneko. Aurretik, ingelese eta frantsesa irakatsiko dituzte Gaztanenea jauregian, eta eskaera egiteko lehen fasea datorren astelehenean amaituko da, 13:00etan.

Ingelesari dagokionez, Bletik

Clera arteko mailak eskainiko dituzte Gaztanenean, eta frantsesari dagokionez, A1 eta B2.2 mailen artekoak.

Aurrez aurreko eskolak izango dira, baina ingeleseko B2.2 maila erdi presentzialki egiteko aukera ere badago. Udalak azaldu du datorren ikasturtean ez dutela alemana irakatsiko Azkoitiko eskolan, aurreko urteetan ez delako egon nahikoa eskari. Dena

den, hurrengo ikasturterako ikasgai hori berreskuratzeko asmoa dute.

Hilaren 18an amaituko da izen ematea, eta onartuen zein baztertuen behin-behineko zerrendak hilaren 20an argitaratuko dituzte. Era berean, irailaren 18tik urriaren 6ra bitartean ere matrikulatu ahal izango da, eta plazarik hutsik balego, bigarren esleipenean hartuko lukete

hura. Guztira, 11 talde osatuko dituzte, eta 220 pertsona ingururentzat lekua izango da.

Online eman behar da izena, Ikasgunearen webgunearen bidez, eta ikasturte osorako prezioa 72,36 eurokoa izango da. Informazio gehiago, berriz, 943-89 92 75 telefono zenbakira deituta edo eoieibarheo@gmail.com helbide elektronikora idatzita lor daiteke.



Azkoitiko Hizkuntza Eskola. A.U.



Kuadrillen Eguneko irudi bat. AITZIBER ARZALLUS

Txalintxo tabernak Ernai salatuko du, egindako «akusazio larriak» medio

Azpeitiko Ernaik azaldu zuen andremarietako Kuadrillen Egunean bi emakumek sexu erasoa jasan zutela Txalintxon, zerbitzarien erantzuna dela eta, taberna «konplize» eginez.

– **ANE OLAIZOLA** Azkoitia
Txalintxo tabernak jakinarazi duenez, salaketa jarriko du Ernairen aurka, gazte antolakundeak joan den abuztuaren 26an *Uztarrria* Azpeitiko atarian egin zituen «akusazioen» harira.

Gazteok argi daukagu: eraso sexisten aurrean, armatuta gaudel izenpean, Azpeitiko Ernaik azaldu zuen, abuztuaren 18an, andremarietako Kuadrillen Egunean, bi emakumek sexu erasoa jasan zutela Txalintxo ta-

bernan. Haiek zerbitzariei jakinarazi ostean, «erantzun lotsagarriak» jaso zituzten emakumek Ernairen arabera, «gertatutakoari garrantzia kenduz, axolagabekeria erakutsiz eta tabernatik alde egiteko oihukatuz». Hori horrela, Ernaik erasoaren konplizetatz jo zuen taberna. «Erasotzeko beste modu bat da, azken finean», gaineratu zuen taldeak.

Tabernak ohar bidez azaldu du «ustezko sexu eraso batzuei»

buruz hitz egiten dela Ernairen testuan, eta Txalintxoko tabernariak «erasotzaile eta konplize bezala» agertzen direla.

Adierazpen horien aurrean, Txalintxo tabernak hedabide honi azaldu dio «behin baino gehiagotan» saiatu dela Ernairekin hitz egiten, baina haiek ez dutela «ezer jakin nahi» izan. Ernaik egindako «akusazioak oso larriak» dira tabernaren ustez, eta horregatik epaitegietara joztearabaki dute.

Zabalik da gaztetxoan antzerki tailerreko talde berrirako izen ematea

– **AITZIBER ARZALLUS**

Azpeitia

Azken urteotan gaztetxoan antzerki tailerrak izan duen arrakasta ikusita, hasi berri den ikasturterako beste talde bat abian jartzea erabaki du Kulturaz kooperatibak. Tailer horretan parte hartzeko interesa dutenek gaurtik asteartera bitartean izango dute izena emateko aukera, *dinamoia.eus* webgunean. Taldeak mugatuak izango direnez, dau- den lekuak baino jende gehiagok

emango balu izena, aukeraketa zozketa bidez egingo dute izena emandakoen artean.

Talde berria 8 urtetik 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. Tailerra astean behin izango da, astelehen, astearte edo asteazkenetan, Dinamoia sormen gunean; eta urteko osoko kuota 130 euroko izango da.

Bestalde, oraindik badago helduen Antzerki Sormen Laborategian izena emateko aukera, *dinamoia.eus* webgunean.



Aurreko ikasturteko antzerki emanaldiko argazkia. ALBERTO BELOKI

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

**UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Ostirala, 2023ko irailaren 15a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktu.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Ariz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39, zarautz@uktu.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23, orio@uktu.eus.
Zumaia: 685 71 20 90, zumaia@uktu.eus.
Getaria: 607 49 87 23, getaria@uktu.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25, azpeitia@uktu.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27, azkoitia@uktu.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27, zestoa@uktu.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 29°
A 18°

Mareak

Itsasgora	05:43-17:54
Metroak	4,22-4,4
Itsasbehera	11:42
Metroak	1,12

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, ostirala

Antzerkia

Zarautz. Baginaren bakarrizketak antzezlan, 20:00etan, Modelo aretoa. Aktoreak: Ainhoa Etxebarria, Itziar Urretabizkaia eta Intza Alkain.

Aurkezpena

Orio. Saregile Orioko Emakumeen Etxearen irekiera ekitaldia eta aurkezpena, 18:00etan, Piliku plazan.

Zarautz. Jesus Mari Arruabarrena argazkilaria *Tamala* argazki liburuaren aurkezpena, 18:00etan, Photomuseumen.

Azoka

Azpeitia. Stock Azoka, 16:00etatik 20:00etara, Azoka Plazan eta hainbat saltokiren atarietan.

Kontzertua

Azpeitia. Muzak eta Siglas taldeen kontzertuak, Katapulta Tourren barruan, 20:00etan, Sagastin kulturunean.

Zumaia. Benito Lertxundiren kontzertua, 21:30ean, Aitzuri pilotalekuan.

Zinema

Zumaia. *Las dos caras de la justicia* filma, 19:30ean, Aita Marin.

Bihar, larunbata

Aurkezpena

Azkoitia. Esteban Elizondo organo jotzailearen liburuaren aurkezpena, 12:00etan, Azkoitia parrokian.

Zinema

Azkoitia. *Campeonex* filma, 19:30ean, Baztartxon.

Zarautz. *Ninja Turtles-Caos Mutante* filma haurrentzat, 16:45ean. *Todos los nombres de dios* filma helduentzat, 19:15ean eta 22:15ean, Modelo aretoa.

Zumaia. *Las dos caras de la justicia* filma, 19:30ean, Aita Mari aretoa.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gaurtik igandera bitartean, Zarauzko Salbide auzoan festak ospatuko dituzte. Udazkena hasi berritan, berriz, samielen txanda izango da Aiako Laurgain auzoan eta Aizarnazabalen.

Uda bukaeran, jaiak ez du etenik

—ANDREA ZIPITRIA
—NEREA URANGA

Udako festa nagusiak igaro arren, jaiak ez dute etenik Urola Kosta eskualdeko udalerrietan eta auzoetan. Uda bukaeran eta udazkenaren hasieran ere hainbat tokitan izango dute zer ospatua.

Zarauzko Salbide auzoa dotorre jantzi dute iraileko hirugarren asteburua den honetan festak ospatzeko; azoko hainbat balaitan eta leihotan zapiak jarri dituzte, eta banderaxoak ere prest dituzte jaiak hasteko.

Gaur arratsaldean hasiko dituzte Salbideko festak, eta igandera bitartean ekitaldi betetako asteburua izango dute auzokideek. Adin guztietako bizilagunentzako antolatutako egitaraua, musika, jolasa eta otorduak tartean direla.

Asteburu honetan Salbiden, eta hurrengo bi asteburuetan, berriz, Aizarnazabalen eta Aiako Laurgain auzoan samiela ospatuko dituzte.

Samieleterako prestatzen
Aizarnazabalen bete-betean murgilduta daude herritarrak

Salbideko jaiak

GAUR, OSTIRALA

17:15. Txupinazoa eta txosnaren irekiera.

17:15. Haur jolasak, tailerrak, buhundiak eta erraldoiak.

19:00. Hamarru elektrotxaranga.

20:00. Parrillada.

22:30. Kontzertuak: Amiltzen eta Matraka-Band.

BIHAR, LARUNBATA

09:00. Diana.

10:30. Txirindulari txikien itzulia eta hamaiketakoa.



Iazko Zarauzko Salbide auzoko jaietako une bat. HITZA

Euskal Jai Eguna eta Samiel jaiak antolatzeke lanean.

Euskal Jai Eguneke paella herrikoirako txartelak salgai jarri dituzte Uztarri tabernan, eta horiek erosteko aukera izango da datorren asteazkenean bitartean. Paella herrikoian laguntzeko boluntarioak behar dituztela azaldu du Aizarnazabalo Udalak, eta herritarrak horretan aritzera animatu ditu.

Aizarnazabalo samieleterako

herri afarirako txartelak, berriz, datorren astelehenetik aurrera ipiniko dituzte saltzen, Uztarrin. Txartel horiek erosteko aukera hildaren 27ra artekoa izango da.

Samiel jaien barruan, Adiskide Aizarnazabalo bertsozale elkarteak bertso saioa antolatu du

hildaren 22rako; 22:30ean izango da, Atari Soro pilotalekuan. Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Maialen Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariek kantatuko dute, eta Igotz Alkorta ariko da gai jartzaile eta aurkezle. Sarrera doakoa izango da.

BERRIAK MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA BEHAR DU

BERRIAn marketin eta komunikazio lanak planifikatu eta inplementatuko dituen pertsona baten bila gabiltza.

Eskatzen da:

- > Marketin edo komunikazio arloko ikasketak.
- > Marketin digitalari lotutako ezagutza zabal: sare sozialak, posta elektronikoa bidezko marketina, SEO, SEM.
- > Marketin edo komunikazio arloko lanetan esperientzia izatea.
- > Idatziz komunikatzeko gai izatea.
- > Euskara maila ona (gutxienez, EGA edo haren baliokidea den euskara maila).
- > Taldean lan egiteko gaitasuna.

Baloratuko da:

- > Hedabideen sektorean lan egin izana marketin edo komunikazio arloetan.
- > Ikuspegi sortzailea izatea.

Interesa duenak bidali curriculum, irailaren 19a baino lehen, 'MKT-23' erreferentzia zehaztuz, helbide honetan: gizabaliabideak@berrialdeia.eus.